

# Hizkuntzaren eremuko jakintza- alorrak eta *Uztaro* aldizkariaren ekarpenak euskarazko aldizkari zientifikoaren langintzan

Gidor Bilbao Telletxea  
UPV-EHU

## Hizkuntzaren eremuko jakintza-alorrak

Jokin Apalategi zuzendariak *Uztaro* aldizkariaren 0 zenbakian idatziriko sarrera gisakoa oso argigarria da aldizkariaren erro, helburu eta hautuei buruz. Orain, hogeita zazpi urteko uztaroak ehun aleko uzta eman digunean, norberaren jakintza-alorretik abiatutako gogoeta egiteko eskatu zaigu zenbait ikertzailei, eta egiteko horretarako bereziki esanguratsuak iruditu zaizkigu Jokin Apalategik orduan idatzitakoak: «Giza eta gizarte-zientzietan geroz eta uzta gehiago sortzen da artikuluen neurriko, eta nahiz eta euskal letren munduan aldizkariak egon horietako batzuri tokirik eskaintzeko, anitz, inolako argitalpen ahalik gabe, zokoraturik gelditzen da». Gero, *L'Année Sociologique* aldizkariaren eredu diziplinartekoa aipatzen zuen, baina tradizio anglosaxoiko jakintza-alorren espezializazioari ateak zabalduaz. Eta, azkenik, *Uztaro* aldizkarian lekua izango zuten jakintza-alorrak zerrendatu zituen: «Gure aldizkarian, orain beretik, antzerkilaritza, musikologia, bertsolaritza, ekonomia, filosofia, historia, kazetaritza, pedagogia, psikologia, soziologia, zuzenbidea, hizkuntzalaritza elkarrekin gurutzatuko [dira]. Eta itxaropenik badugu gaurkoz presentzia tipiagoa edo hutsa duten beste giza eta gizarte-jakintzen sail batzuek ere eginkizun berera laster sumatuko direla».

Nire lan honetarako, «hizkuntzaren eremuko jakintza-alorrak» multzoa asmatu dut, nire ikasketen, ikerketen eta ibilbide akademikoaren soslaia eta *Uztaro* aldizkarian egin ditudan ekarpenen alorra uztartu guran. Izan ere, nire esperientziatik abiatuta, esan nezake ondo baino hobeto bete dela aldizkariaren zuzendariaren aurreikuspena, 0 zenbakiko alorren zerrenda era naturalean zabaldu baita aldizkariaren bizitzan. 1990ean, Filologia Klasikoan eta Euskal Filologian lizentziatu berria nintzen; orduantxe hasia nintzen lanean irakasle-ikertzaile gisa UPV/EHUko Ikasketa Klasikoen Sailean, Latindar Filologiako jakintza-alorrean; eta,

*Uztaro* aldizkariaren alorrei begiratuta, inon sartzekotan, *Hizkuntzalaritza* multzoan sartu beharko nukeen neure burua. Hogeita zazpi urteren buruan, ordea, 2016ko 99. zenbakiko egileentzako oharretan zerrendatzen diren arloei erreparatzen badiegu, hizkuntzaren eremuko sei etiketa agertzen dira, nik hain zuzen gaur egun Izaro Goiriena irakaslearekin batera aldizkariaren Erredakzio Kontseiluan ordezkatzeko nituzkeenak: soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpengintza eta ikasketa klasikoak. Esan behar da horiez gain «Filologia» (hiru aldiz) eta «Euskal Filologia» (behin) etiketak ere erabili direla aldizkariaren historian zehar.

## 1990-2016

Berriz ere baliagarri zaizkigu Jokin Apalategiren hitzak: «Nahiz eta euskal letren munduan aldizkariak egon horietako batzuri tokirik eskaintzeko, anitz, inolako argitalpen ahalik gabe, zokoraturik gelditzen da». Hizkuntzaren eremuan kokatu ditugun *Uztaro* aldizkariako zortzi jakintza-alorrak hartzen baditugu aztergaitzat, esan liteke 1990ean horietako zazpi bazutela beste aldizkariaren bat euskaraz argitaratzeko, eta bakarra (Ikasketa Klasikoak) zegokeela umezurtz. Esan nahi baita, aldizkariak euskara hutsezkoak (*Senez, Bat Soziolinguistika Aldizkaria, Zutabe, Egan...*) nahiz hainbat hizkuntzatan argitaratuak (*Euskera, Fontes Linguae Vasconum, Oihenart, ASJU...*) izanik ere, 1990. urtean soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpengintza edo filologiako artikulu zientifiko bat idazten zuen autoreak bazuen non argitaratu, *Uztaro*-ren beharrik gabe; Ikasketa Klasikoen alorrean euskaraz idatziez gero, ordea, ez. Kontua da, ikuspegi horretatik, gauzak ez direla asko aldatu hogeita zazpi urtean; gaur ere sei alor haietako autoreek badutelako non hautatu, *Uztaro*-rekin nolabaiteko lehian, eta Ikasketa Klasikoetako artikulu zientifikoa euskaraz idazten duenak gaur ere ez baitu aurkituko argitaratzeko beste leku egokirik, *Uztaro*-tik kanpo.

Jakintza-alor bakoitzean argitaraturiko lanei begiratzen badiegu, ikusten dugu *Uztaro*-k 1990.ean bere buruari aurkezturiko erronka bere horretan dagoela: Ikasketa Klasikoetan hogeita zazpi urtean sei artikulu argitaratzeak (eta beste inon ez da beste halakorik argitaratu) esan nahi du gaurkoz ez dagoela aski produkzio Ikasketa Klasikoetako aldizkari espezifiko bat euskaraz egiteko, baina, aldi berean, beharrezkoa dela halakoak hartuko dituen aldizkari bat.

Produkzio-kopuruen beste muturrean Hizkuntzalaritza (hirurogei artikulu baino gehiago) eta Literatura (hamabi lan) daude. Bi alor horietako autoreek zergatik hautatu dute *Uztaro*, beste aldizkariaren bat hautatu beharrean? Autore bakoitzak bere arrazoiak izan bide ditu, eta ezingo genituzke hemen guztiak zerrendatu; are *Uztaro*-ren historian aldi desberdinak izan dira, bai aldizkariak berak emandako urratsen ondorioz, eta bai unibertsitate-dinamikak UEUtik kanpo emandako urratsen ondorioz; baina, autoreen nominari eta argitaratze-urteei begiratuta, hiru arrazoi posible aipatuko nituzke, ez bakarrik ez esklusiboak ez badira ere:

1. Artikulu batzuk UEUren ikastaroetan edo jardunaldietan emandako hitzaldien bertsio idatzia dira. Horrela dira, adibidez, Juankruz Igerabideren *Uztaro* 4

(1992)koa, Koldo Zuazoren *Uztaro* 21 (1997)koa edo Amelia Barquínen *Uztaro* 35 (2000)koa.

2. Autore batzuentzat, bere lehenengo lanentzako tokia izan da, seguruenik argitaltoki hurbil gisa sentitua. Halaxe izan bide da, seguruenik, adibidez, Katixa Dolhareren *Uztaro* 64 (2008)koarekin, edo Aiora Jakaren *Uztaro* 69 (2009)koarekin.
3. Azkenik, ibilbide akademiko errekonozitua zuten autoreentzat, norberaren curriculum dibertsifikatzeko modu bat izan bide da, aldi berean aldizkariari nolabaiteko izen ona aitortuaz. Halaxe ulertzen ditut, adibidez, Joseba Lakarraren lanak (*Uztaro* 16 (1996), *Uztaro* 25 (1998), *Uztaro* 29 (1999), *Uztaro* 31 (1999)).

### Zer egin du *Uztaro*-k izen ona irabazteko?

1990eko 0 zenbakitik hasi eta gaur arte, aldizkotasunaren erregulartasuna izan da, nire ustez, *Uztaro*-ren ezaugarri goraipagarri eta bereizgarria. Erregulartasun horren oinarrian, besteak beste, UEUren erabaki bat dago, nire ustez: bere soldatapeko langileetako bat edo biren eginkizunen artean aldizkariaren kudeaketa- eta idazkaritza-lanak sartzea (momentu desberdinetan eta lan-banaketa desberdinekin, Mari Karmen Menika, Agurtzane Uriarte, Izaro Gurrutxaga eta, luzaroen, 1995az geroztik, Nekane Intxaurtza). Ezaugarri arrunta dirudien arren, bereizgarria da hizkuntzaren eremuko jakintza-alorretako beste euskarazko aldizkari batzuei begiratzen badiegu, beste horietako askotan ez baitago soldatapeko langilerik idazkaritza-lanetan.

0 zenbakitik agertzen da *Uztaro*-n, orobat, hizkuntza-orraztailearen figura. 1990etik 2002ra, hasieran bera bakarrik eta gero beste batzuekin batera, Alfontso Mujika izan zen lan horren arduraduna. 1995.ean Izaro Gurrutxaga eta ni neu hasi ginen hari laguntzen. 2001. urtean, Arantza Bilbao Telletxeak ere heldu zion lan horri. Eta, azkenik, 2004an, Ander Altunarekin eman zen alor honetan profesionalizaziorako urratsa, UEUK liburugintzako zuzentzaile-lanpostua sortu baitzuen, eta haren egitekoen artean zehaztu baitzuen *Uztaro*-ren orrazketa-lana. Ezaugarri hau ere arrunta dela pentsa genezake, baina kontua da hizkuntza-orrazketa soiletik haratago, beste bi egiteko ere hartu izan dituela *Uztaro*-n zuzentzaileak (garai desberdinetan, beharren eta aukeren arabera, intentsitate desberdinekin):

1. Autorearekin batera, lan pedagogikoa. *Uztaro*-ra (gehiago lehenengo urteetan azken urteetan baino) hizkuntzaren aldetik asko aldatu beharreko testuak iritsi dira. Edukia egokia izanez gero, formari dagozkion aldaketak handiak izan arren, *Uztaro*-n ez zaizkio lanak egileari itzuli. Aldizkariak bere gain hartu du testuak hobetzea eta autorea, ahal zen neurrian eta interesaturik zegoen heinean, hizkuntza-kontuetan trebatzea, betiere *Uztaro*-n argitaratu behar zuen artikulua mugen barruan.
2. Hizkuntza-arazo soiletatik kanpo, ortotipografia eta aurkezpen-arauak ere zehaztasunez begiratzea eta, behar izanez gero, autoreei laguntzea. Honetan 1995a da mugarrria, urte horretako 14. zenbakian argitaratu baitzen

«Idazleentzako informazioa» (gaurko «Egileentzako oharrak») erabat berriturik. Aitortu behar da idazketa-arautegi horrek zor handia zuela *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo. International Journal of Basque Linguistics and Philology* aldizkarikoarekin, baina esan daiteke idazkuntza-eskola izan dela *Uztaro*-n argitaratu duten autore askorentzat.

Hirugarrenik, *Uztaro*-ren izen ona irabazteko bide bilakatu da artikuluen ebaluazio-prozesua momentu egokian abiaraztea. 2010. urtean, *Uztaro*-n argi ibili ginen mundu akademikoan aldizkari zientifikoak ematen ari ziren urratsa garaiz emateko. Artikuluen ebaluaziorako *double blind peer review* edo parekoen ebaluazio itsua deitzen zaion ebaluazio-prozedura arautzen zuen protokoloa idatzi eta ezarri genuen aldizkarian; aitzindariak izan ginen euskal aldizkari zientifikoaren artean, eta lehenak hizkuntzaren eremuko jakintza-alorretakoaren artean. Badakigu gero aldizkari batek baino gehiagok hartu duela eredu gisa *Uztaro*-k eginiko protokoloa eta jardunbidea, bakoitzak bere kasurako egokiturik. Horri esker, eta kalitate-adierazletzat agertu ohi diren beste aldaketa formal batzuk (artikuluaren jasotze-data eta onartze-data esplizitatzea, izenburua eta gako-hitzak ingelesez ere ematea... eta halakoak) gauzatu ondoren, harro joan ahal izan ginen LATINDEX eta DICE zerrendetara, edo DIALNET eta ISOC-CSIC bezalako datu-baseetara, gure aldizkaria han agertzeko eskatzera. Hain zuzen urte horietan hasi ziren unibertsitatean karrera akademikoa egin nahi dutenentzako ebaluazio-sistemak aldatzen, hala Hego Euskal Herriko nola Ipar Euskal Herriko unibertsitateetan, eta gero eta garrantzitsuago bihurtzen ez bakarrik artikulua argitaratzea, baizik eta kalitate-ezaugarriak betetzen dituztela frogatzeko bideak dituzten aldizkarietan argitaratzea; *Uztaro*-k etxeko lanak eginak zituen.

Horri esker, euskarazko irakasleen kopuruak unibertsitateetan gora egitearekin batera, argitaratzeko jasotzen diren artikuluen kopuruak gora egin du 2010az geroztik; alor guztietan egin du gora, baita hizkuntzaren eremuko jakintza-alorretan ere. Zein da salbuespena? Ikasketa Klasikoen saila, alor hau geldi geratu baita 2001. urteaz geroztik, unibertsitatean alor honetako euskarazko irakaskuntzak izan duen geldialdiarekin batera.

Itzulpengintza izango litzateke ifrentzua. Unibertsitatean eta mundu akademikoan goraldian dagoen diziplina izanik, *Uztaro*-n ere goraldia izan du (ez beti Itzulpengintza etiketarekin, batzuetan Itzulpengintzako artikulua Hizkuntzalaritza edo Literatura etiketekin ere argitaratu baitira *Uztaro*-n). Nahita aipatzen dut alor hau, esanguratsua baita autoreakegin behar duen hautuari dagokionez: Itzulpengintzaren alorreko autore batek bere artikulua zientifikoa *Senex* aldizkarian argitaratzen badu, beste edozein lekutan argitaratuta baino irakurle gehiago izango du seguruenik; baina artikulua hori berori *Euskera*-n, *Fontes Linguae Vasconum*-en edo *Uztaro*-n argitaratzen badu, agian irakurle gutxiago izango du, baina puntu gehiago eskuratuko ditu ebaluazio akademikoetan. *Uztaro*-k, gaurkoz, eginkizun bat betetzen du horretan ere.

## 2017tik aurrera

1990.etik hona, hizkuntzaren eremuko jakintza-alorretako beste aldizkari batzuk desagertu dira (*Zutabe*, adibidez, bere lekua *Hizpide*-k hartu badu ere). Orduan prestigio handia zuenen bat (ez dugu izenik emango) gaur gainbeheran dago. Besteren batek (*Senez*-ek, adibidez) ez du oraindik asmatu aldizkari zientifikoaren eta dibulgazioko aldizkariaren arteko ereduaren artean bere lekua definitzen. Edo hautatu dute beren bidetik segitzea, beren betiko irakurlegoarentzat, eta ez sartzea aldizkari zientifikoarentzat datu-base eta aurkibideek eskatzen dituzten baldintzen dinamikan. Azkenik, beste batzuek *Uztaro*-ren ildo bera hartu dute, bakoitzak bere ezaugarriekin, eta lortu dute zenbait aurkibide eta datu-basetan agertzea.

Nolanahi ere, etorkizuneko erronkak definitzeko, berriz balio digu Jokin Apalategiren 1990.eko gogoetak: orduan Frantziako aldizkari zientifiko bat eredutzat hartu eta mundu akademiko anglosaxoiko joerei adi izatea aholkatzen zuen moduan, gaur ere adi izan behar dugu unibertsitate-giroko munduko aldizkari zientifikoek ematen dituzten urratsen eta hartzen duten norabidearen aurrean. Zalantzarik gabe, kalitate-ezaugarriak bete behar ditugu zintzotasunez, horietan sinesten dugulako; eta, betetzen ditugula agertu, erakutsi eta frogatzeko, kalitate-adierazle formalak zaindu behar ditugu.

Baina gure aldizkariaren izateko arrazoia den hizkuntzak berak (hiztun-kopuru erlatiboki txikia izanik) eta gure komunitate zientifikoaren tamainak mugak ezartzen ditu, aldi berean, kalitate-adierazletzat hartzen den ezaugarri baten aurrean: zitazio-kopurua. Orain arte egin dugun moduan, lortu behar dugu munduko aldizkarietan gertatzen denaren jakitun izatea eta joera berriak, aldi aldikoak, gure komunitate zientifikoarentzat egokitzea.

